

2000/2022 EBAZPENA, urriaren 25ekoa, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESiko Oftalmologiako Atal Sanitarioko burua (Begi-azalera, Kornea eta Kristalinoaren Unitatea) hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen apirilaren 6ko 547/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Oftalmologiako Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 22ko EHAA 142 zk. eta 2022ko abuztuaren 2ko BOE 184 zk.).

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen uztailaren 28ko 1536/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko irailaren 1eko EHAA 168 zk. eta 2022ko irailaren 24ko BOE 230 zk.), zuzendu egin du apirilaren 6ko 547/2022 Ebazpenean lehiaketarako deitutako lanpostuaren izendapena, arlo klinikoa zehatzuz. Hala izendapen hau izatera igaro zen: Oftalmologiako Atal Sanitarioko burua (Begi-azalera, Kornea eta Kristalinoaren Unitatea).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun baliouduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 24an amaitu zen.

Akatsaren izaerak hautagaien aurkezpenean eragina izan dezakeela ikusita, eskabideak aurkezteko beste epe bar irekitzen da, 15 egun baliouduneko hain justu, uztailaren 28ko 1536/2022 Ebazpena dagokion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken egunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko urriaren 17an amaitu da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun baliouduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bilbo-Basurtuko ESiko Oftalmologiako Atal Sanitarioko Burua (Begi-azalera, Kornea eta Kristalinoaren Unitatea) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bilbo-Basurtu ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2022ko urriaren 25ean.

Bilbo-Basurtu ESiko zuzendari gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



Osakidetza
BILBO-BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE
Izpt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano

I. ERANSKINA

OFTALMOLOGIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA (BEGI-AZALERA, KORNEA ETA KRISTALINOAREN UNITATEA) IZENEKO LANPOSTUA

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Silvia López-Plandolit Antolín andrea.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzén.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.